

«Ilusio handia egiten digu biok elkarrekin aritzeak»

JON ANDER ETA ASIER IRIBAR
ESKUBALOI JOKALARIAK

Zumaian sortuak, Pulpoko harrobian urratu zuten bidea, eta gaur egun, Bidasoara jauzi eginda, eskubaloi jokalaririk profesionalak izateko bidean dira. Odol berekoak ez ezik, orain talde bereko jokalaririk dira Iribar anaiak. «Oso pozik» daude elkarren abaroen // 4

JABIGONZALEZTOSTON

Zaintza eredu «publikoa eta unibertsala» aldarrikatu dute grebaren bezperetan

Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaintza eredu berria behar dela nabarmenduko du greba feminista orokorraren bidez • Badira aldarri horrekin bat egiten duten zenbait proiektu komunitario eskualdean // 2-3

Zestoa Baserritarren eta artisauen azoka egingo dute Arroabea datorren igandean // 7

San Jose egoitzako Unitate Psikogeriatrikoa berritzeko lanak hasi ditu aldundiak

Hamabost pertsonarentzat lekua izango du guneak, bainugeladun banakako logelekin. Foru aldundiaren zaintza eredu berrira egokituko dute eremua // 5

Zestoa eta Urepele herriak senidetzeko ekitaldia egingo dute larunbatean // 5



Adineko pertsona bat etxeko egongelan eserita. IÑIGO GAITON

Zaintza eredu berria aldarrikatuko dute azaroaren 30ean, «publikoa eta unibertsala». Zerbitzu horren osagarriak izan daitezkeen egitasmo komunitarioak ere izan dira Urola Kosta eskualdean.

Zaintza sareak proiektuz osatuz

– AIORA LARRAÑAGA
SOLABERRIETA

Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba feministak orokorra deitu du azaroaren 30erako, eta egun horretan «pertsona guztiak bizitza osoan zehar zaintzeko eta zainduak izateko duten eskubidea» aldarrikatuko dute; zaintza eskubide kolektiboa, alegia. Baina zer da zehazki azken egunetan bolo-bolo dabilen kontzeptu hori? Galdera horri erantzun eta grebarekin eskatu nahi den zaintza eredu berriaren inguruan hausnartu dute Orioko greba feminista batzordeko kide Esther Arrutik eta Leire Iturraldek. Gainera, zaintza arloan administrazio publikoaren eta eragileen artean martxan jarritako bi proiektu komunitario ere izan dituzte hizpide horietan parte hartu duten hiru lagunek: Orioko Zaintza Sareko boluntario Andoni Urangak eta

Errezilgo Tipi Tapa taldeko kide Mari Tere Bengoetxeak eta Maria Jesus Galarragak.

Gaia kokatzeko, Arrutik uste du argi izan behar dela zaintzak gizartearentzat duen garrantzia. «Bizitzako hainbat etapatan, jaiotzen garenetik hil arte, zainduak izateko beharra izango dugu, eta guk aldarrikatzen dugu zaintza hori modu duin batean egin ahal izatea. Guztiok ditugu senideak ospitalean, adinekoen egoitzetan edo etxeko asistentzia jasotzen, eta zerbitzu hori kalitatezkoa izatea aldarrikatu nahi dugu». Horretarako, zaintza lanen «banaketa parekidea» eskatzen dute, hau da, emakume zein gizonek horren ardurua har dezatela modu parekide batean. Iturraldek datu esanguratsua eman du ildo horretan: «Zaintza lanen %70 emakumeen gain daude, eta desberdintasun handia sortzen du horrek emakumeen eta gizoneen artean».

Zaintza sistema publiko bat eraikitzea ere «behar-beharrez-

kotzat» jotzen dute. «Eraiki hitza erabiltzen dugu gaur egungo sistema ez delako nahikoa eta gain-beheran dagoelako. Horregatik, greba feministako leloak honela dio: *Zaintza irauli, guztia aldatzeko*», zehaztu du Arrutik.

Azken urteetan «zaintza sistema pribatizatu» egin dela ere nabarmendu dute, eta horrek «lan prekarietatea eta zerbitzuaren kalitatearen beherakada» eragin dituela. «Egun Hego Euskal Herrian zaintza zerbitzuen %12 bakarrik kudeatzen du sistema publikoak, eta gainontzekoa pribatizatuta dago. Errotik aldatu behar dela uste dugu hori; pribatizazioarekin amaitu behar da eta administrazioek aizaera publikora itzuli beharko lituzkete zaintza zerbitzu horiek guztiak».

Proiektu komunitarioak

«Zaintza sistema unibertsala eta publikoa» izango da eredu berriaren oinarrian, eta horren osagarri, administrazio publikoek, eragileek eta elkarteek elkarlanean abiatutako proiektu komu-



«Garrantzitsua da indarrak batzea eta hainbat ikuspuntu kontuan hartzea»

Leire Iturralde

Greba feminista batzordeko kidea



«Eragileak herrian eragin nahi du, eta horrelako programek eragin positiboa dute»

Andoni Uranga

Zaintza Sareko boluntarioa

nitarioak ere baliagarriak izan daitezkeela uste dute. «Zaintzeko eta zainduak izateko eskubide hori errealtate bihurtu dadin, elkarren artean osagarriak diren proiektuak jar daitezke martxan. Arlo horretan faktore sozialek, ekonomikoek eta politikoei eragiten dute. Administrazio publikoak zaintza bermatu behar du, eta eragileek zerbitzu horren osagarri diren egitasmoak abia ditzakete. Garrantzitsua da arlo horretan indarrak batzea eta ikuspuntu desberdinak kontuan hartzea, administrazioak askotan ez dituelako kontuan hartzen gizartearen eman daitezkeen egoera zaurgarri guztiak», azaldu du Iturraldek.

Administrazio publikoen, eragileen eta elkarten arteko elkarlanaren adibide da 2020an Orion martxan jarri zuten Zaintza Sarea. «2020an gizarte larrialdi krisi batean murgildu zen koronabirusaren izurritearen eraginez. Euskal Herrian lehen kasuak agertu zirenean, herritarren artean beldurra zabaldu



Errezilgo Tipi Tapa taldeko kideak eta haurrak. ELENA RIKONDO



Zaintza Sareko boluntario bat 2020an erosketara egiten. A. LARRAÑAGA

zen, eta batez ere adineko pertsonak eta egoera zaurgarrian zeuden herritarrak ziren kezkatuen zeudenak. Horregatik, kalera ahalik eta gutxien atera zitezten, Orioko Udalak erabaki zuen esku hartzea eta Zaintza Sarea abiatzea arrisku taldeetako parte ziren herritarrei laguntzeko», azaldu du Andoni Uranga gaztetxeko kideak eta Zaintza Sareko boluntarioak. «Udala harremanetan jarri zen herriko hainbat eragilerekin proiektua abian jartzeko. Gaztetxeak bezala, egitasmoan parte hartu zuten Txurru-muski aisialdi elkarteak, Xaltxerak talde feministako eta beste hainbat elkarteetako kideek. Gure eginbeharra zen Zaintza Sarearen erabiltzaileek behar zituzten enarguak egitea».

Zaintza Sarea martxan jartzeko, boluntarioak 70 urtetik gorako oriotar guztiekin banan-banan jarri ziren harremanetan. «Zerbitzuaren berri eman genien, eta behar zutenerako laguntzeko prest geundela esan. Hasiara batean, jende askok erantzuten zigun bazituztela enarguak egiteko familiartekoak,

baina egitasmoa herrian zabaldu zen heinean, gero eta jende gehiago animatu zen, eta azkenean oso harrera ona izan zuen». Erabiltzaileek telefono zenbaki bati deitzen zuten enarguren bat egiteko beharra zutenean. «Telefonoaren ardura zuen pertsonak boluntarioak antolatzen gintuen erabiltzaileen mandatuak egin genituzten, beharrezko babes neurriak errespetatuz». Izurrite garaiko hilabete zail horiek igarotzeko, erabiltzaileentzat ez ezik, boluntarioentzat ere «oso esperientzia aberasgarria» izan zela nabarmendu du Urangak, «erabiltzaileak oso eskertuta» zeudelako boluntarioek egiten zuten lanarekin.

Orioko Zaintza Sarea udalak eta eragileak abiatu zuten elkar-lanean, eta Urangak uste du horregatik izan zela arrakastatsua. «Arrakasta izan zuen guztiek bat egin zutelako herritarren beharrei erantzuteko. Eragileak herrian eragin nahi du, eta horrelako programak oso eragin positiboa izaten dute. Horregatik, elkarlana behar-beharrezkoa da edozertarako».

Hamabostean behin Errezilgo hainbat belaunalditako herritarrak biltzen dira Tipi Tapa egitasmoaren bueltan, paseo bat ematen duten bitartean elkarren berri izateko.

Harremantzea eta elkar zaintzea du xede Tipi Tapak

—A. LARRAÑAGA SOLABERRIETA-MAIALEN ETXANIZ Errezil

Saiaz mankomunitateak duela urte batzuk Tipi Tapa egitasmoa jarri zuen martxan Errezilen, adinekoen artean ariketa fisikoa sustatzeko. Denborarekin, ordea, egitasmoa eraldatzen joan da, eta hasiera batean kirola egiteko proiektua zena, gaur egun adinekoak elkartzeko eta elkarren berri izateko espazio bilakatu da. Saiaz mankomunitateko kideak azaldu dutenez, adineko pertsonen alderdi emozionala «faktore garrantzitsua» da beren ongizaterako, eta saioetan parte hartzen duten adinekoek «elkarren artean harremantzeari eta zaintzeari garrantzi handia» ematen diote; horrez gain, eskolako haurrek ere parte hartzen dute egitasmoan, belaunaldien arteko harremanak sustatzu.

Mari Tere Bengoetxeak eta Maria Jesus Galarragak gertutik ezagutu dute egitasmoak izan duen bilakaera, eta proiektuaren nondik norakoak azaldu dituzte. «Hamabost egunetik behin, ostegunetan juntatzen gara, 10:30ean; hamabost bat lagun edo biltzen gara, batzuk zaharxeagoak, besteak gazteagoak, eta baita eskolako haurrak ere. Eguraldiaren arabera, paseo txiki bat egiten dugu, baina helburua da gure artean kontuak esatea, bailarakoak eta herrikoak». Izan ere, Errezilen baserrietan sakabanatuta bizi dira herritar asko, eta zenbaitetik kaleko berri izaten ez dutenez, paseo horiek aprobetxatzen dituzte eguneratzeak. «Hiru belaunalditako herritarrak biltzen gara, eta oso aberatsa da hori, haurrek ere gurekin egoteko aukera izaten dutelako. Gai askoren inguruan hitz egiten dugu gure artean, eta saiatzen gara herriko jakintza haurrei transmititzen. Galdeztzen diegu: 'Ba al dakizue zer den

hori?'. Eta zuhaitz bat edo bestea, horien hostoak edo inguruan aurkitu ditzakegun belarrik aipatzen ditugu». Horretarako, eguraldi ona egiten badu, kalean ibiltzen dira, eta eguraldi txarrarekin, berriz, gune jakin bat bisitatzen dute. «Eskolara ere joan gara noiz edo noiz, eta kantuan hartu gaituzte; beste behin, jaialdiren bat ere eskaini ziguten», azaldu dute.

Bi emakumeen iritziz, egitasmoaren alderik interesgarriena «partaideen artean sortzen den harremana» da. «Beste modu batera elkartuko ez ginatekeen jendearekin biltzen gara. Hamabost bat lagun izaten gara, baina nahi dugu jende gehiago animatzea». Kanpotik Errezilera bizitzera joan diren zenbait ere Tipi Tapan parte hartzen ari direla azaldu dute. «Herria ezagutzeko eta komunitatearen parte sentitzea modu bat da, bestela oso zaila delako belaunaldi desberdinetako herriko jendea ezagutzea».

Zaintza jomugan

Elkarren artean harremantzeaz gain, egitasmoak «elkar zaintzeko ere balio» duela adierazi dute. «Konfiantza giroa sortu da gure artean, eta elkarri laguntzen diogu ahal dugun heinean».

Hitzaldiak ere antolatzen ditu herrian Saiaz mankomunitateak zaintza eta osasuna oinarri hartuta, eta gaiak hausnartzeko aukera izan dute Bengoetxeak eta Galarragak. Hala, herrian zaintza arloan abiatu diren zerbitzuek herritarren ongizatea hobetu dutela nabarmendu dute. «Lehen gure adinekoek etxean zaindu behar izaten genituen, inolako laguntzarik gabe. Orain, ordea, badaude eguneroko zaintza lan hori arintzen duten zerbitzuak, eguneko zentroa esaterako. Etorkizunari begira, gustatuko litzazuke beharra duena bere etxean zaindua izan dadin balia-bideak eskaintzea familiei».

Greba feministara deituz ekitaldia egingo dute igandean Zumaian

—NEREA URANGA

Azaroaren 30erako greba feministara deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eta deialdiarekin lotuta, Urola Kostako Mugimendu Feministak eskualde mailako ekitaldia egingo du azaroaren 19an, igandean, Zumaian. 12:00etan hasita, ekitaldia egingo dute, eta han bildutako guztiek batera grebari babesa adierazteko argazkia aterako dute. Ondoren, Akeleia musikariaren eta beste musikari batzuen saioa izango da, eta pintxoak eta edatekoa ere jarriko dituzte.

Igandean Zumaian egingo den ekitaldira elkarrekin joateko eskualdeko hainbat herritartik hitzorduak jarri dituzte.

Autobusak

Azkoitia. 10:30ean, liburutegia-
ren aurrean.

Azpeitia. 10:00etan, bizikletaz
Zumaiaara joateko, Perez Arregi
plazan. 11:30ean, autoz joateko,
Perez Arregi plazan.

Zestoa. 11:00etan, Zumaiaarako
autobus geltokian.

Aizarnazabal. 11:30ean, udale-
txe aurrean, elkarrekin autoe-
tan joateko.

Orio. 10:35ean, autobus gelto-
kian.

Zarautz. 10:00etan, oinez joan-
go dira Zumaiaara, Musika Plaza-
tik irrenda. 10:55ean, autobus
geltokian.

Getaria. 10:30ean, autobus gel-
tokian.

Iragarki laburra

Alokagari

Zarautz. San Pelaion, bi logela-
ren alokairua. Txokodun jardi-
n pribatuarekin. Epe luzerako,
konfiantzazko bi emakume pi-
sukideren bila nabil. Animalia-
rik gabe. Bakoitzeko 525 euro hi-
lero, eta etxeko gastuak hiruron
arteant partekatzen. Ana: 667 33
87 27.

«Biok kantxan gaudenean taldeak aurrera egiten du»

JON ANDER ETA ASIER IRIBAR
ESKUBALOI JOKALARIAK

Pulpoko harrobian hezi ondoren, Asier (Zumaia, 2003) eta Jon Ander Iribar (Zumaia, 2005) anaiak eskubaloijokari profesionalak izateko bidean dira Bidasoan.

- JABI GONZALEZ TOSTON
Senior mailara iritsi bezain pronto egin duzue Bidasoarako jauzia biok. Nola egokitu zarete taldera?

ASIER IRIBAR: Hirugarren urtea dut nik Irungo (Gipuzkoa) taldean, eta aitortu behar dut hasiera zaila egin zitzaidala, jauzia handia baita. Azken finean, maila oso altuko taldea da eta jokalariek fisikoki oso indartsuak dira. Horregatik, lan asko egin behar izan dut kategoriak eta taldeak eskatzen duten mailara pixkanaka egokitzeko.

JON ANDER IRIBAR: Nire egoera ere antzekoa da. Lehenengo denboraldia dut Bidasoan, eta antzeman dut zenbateko alde dagoen jokalarien kalitatean eta fisikoan. Zentzu horretan, joan den denboraldian Pulpoko senior taldearekin zenbait partida jokatu izanak asko lagundu dit egokitzapen prozesu horretan. **Asobaleko taldearekin entrenatzen duzuen arren, Bidasoaren bigarren taldeko fitxa duzue biok: lehen maila nazionalen aritzen den Hondarribikoa.**

A. I.: Bai. Horrek aukera ematen digu beheko taldean aritzeko Bidasoarekin minutu gutxi baditugu. Nik, adibidez, bi partida izan ditut asteburu askotan, baina ez zait gaizki iruditzen, izan ere, garrantzitsua da gazteoi protagonismoa ematea eta lider sentiaraztea jokalarik gisa garatzen jarraitzeko. Ezinbestekoa da partidak jokatzea, nahiz eta bigarren taldean izan.

J. A. I.: Anaia ez bezala, ni bigarren taldean nago zentratuta, ba-

tez ere. Asierrek Bidasoarekin entrenatzen du egunero, eta jokatzeo aukerarik ez duen aste-buruetan etortzen da gurekin. Ni ere banago lehen taldearen dinamika horretan sartuta, astean hirutan entrenatzen dudalako haiekin, baina oraindik ez dut debutatzeko aukerarik izan. Dena den, Granollersen aurkako partidarako deialdian sartu ninduten, eta seinale ona da hori. Denboraldiaurrean ere izan nuen zenbait minutu jokatzeo aukera.

Pulpoko seniorrak baino maila bat gorago dago Hondarribi. Beraz, hor ere badago aldea. Hala ere, zure zenbakiak ikusita (18 gol zazpi partidatan) esan daiteke ongi egokitu zarela.

J. A. I.: Uste dut maila hobe eman dezakedala, denboraldia hasi besterik ez delako egin eta asko dudalako hobetzeko, baina gustura nago orain arte erakutsitakoarekin. Erasoan nahiz defentsan ari naiz jokatzeko, eta oso sentitzen naiz bi lanetan.

Zuri, aldiz, Asier, badiurdi txiki geratu zaizula kategorian. 44 gol egin dituzu sei partida eskas-tan, eta Asobalen ere gero eta aukera gehiago dituzu. Joan den igandean, esaterako, lau gol sartu zenituen.

A. I.: Ez nuke esango lehenengo maila nazionala txiki geratu zaidanik, baina egia da lasaitasun handiagoarekin jokatzeo aukera ematen didala eta gustura hartzen dudala taldea nire gain. Gainera, klubeko arduradunak ere pozik daude nire lanarekin. Era berean, aurreko denboral-

dietan baino minutu gehiago ari naiz izaten Asobalen, eta azken partidaren oso aske eta eroso sentitzen nintzen.

Biak lehen aldiz ari zarete elkarrekin talde berean; izan ere, Pulpon aritu zareten urteetan sekula ez duzue bat egin. Berezia izango da hori ere, ezta?

J. A. I.: Noski. Gogo handiz hartu dugu biok, denbora luzez itxaron dugun zerbait izan delako. Azkenean iritsi da, eta oso pozik gaude.

A. I.: Bai guri eta bai familia osoari egiten zion ilusio handia biok elkarrekin aritzeak. Gainera, oso ongi ulertzen dugu elkar, eta biok kantxan batera gaudenean aurrerapauso ematen du taldeak. **Profil oso desberdineko jokalariek al zarete?**

J. A. I.: Esango nuke Asier erasoan hobeto moldatzen dela defentsako lanetan baino, eta ni antzera bi zereginetan. Horregatik, Hondarribian jokatzeko duenean, erasoan aritzen da gehien; taldearen indargune nagusia bat da, asko ematen digulako. Ondorioz, gehiegi ez nekatzea komeni zaigu.

A. I.: Bada, nik uste dut bion joko

estiloa antzekoa dela, nahiz eta berdina ez izan. Erasoan, adibidez, Jon Anderrek oso ondo irakurtzen du jokoa taktikoki, eta ni zuzenagoa naiz; jaurtiketaren edo azken pasearen bila joateko joera handiagoa dut. Defentsan, aldiz, erdiko postuan defendatu ohi du hark. Arlo horretan nik baino ardura handiagoa izaten du, beraz.

Joan den denboraldian Cangas-en [Galizia] utzita aritu zinean, ordea, defentsan aritu zinen erasoan baino gehiago.

A. I.: Bai, eta, ez nuen espero, egia esan. Entrenatzailarene erabakia izan zen, eta errespetu osoz hartu nuen. Gainera, aitortu behar dut oso ongi etorri zaidala, asko hobetu nuelako arlo horretan eta jokalariko osoa gogoa naizelako orain.

Galizian igarotako denboraldiari lotuta, esan behar dut hori ere ez zela erraza izan hasieran. Guztia berria zen niretzat, eta taldea ez zegoen egoera onenean. Mailari eustea zen helburua, eta tentsio handia zegoen talde barruan. Zorionez, bete genuen helburua, eta denboraldi amaierako aho zaporea gozoa izan zen,

azkenean. Horrez gain, etxetik hain urrun nengoen lehen aldia zen niretzat, baina oso ongi hartu ninduten eta asko lagundu zidaten. Horregatik, oso eskertuta nago taldearekin nahiz izan nituen taldekide guztiekin.

Zuk, Jon Ander, nola bizi izan zenuen anaia hain urrun iza-tea?

J. A. I.: Anaia Bidasoara joan zenetik eta Irunera mugitu zenetik gutxiago ikusten genuen elkar, baina Galizian are urrutiago nuen, are gutxiago elkartzen ginen. Gainera, ezin nituen haren partidak bertatik bertara ikusi. Dena den, birritan joan nintzaion bisitan.

Bide luzea duzue aurretik oraindik, baina honezkero jarriko zenizkioten zenbait erronka zuen buruei. Zein dira?

A. I.: Epe laburrera begira, Bidasoarekin Europara sailkatu eta nazioarteko txapelketa jokatu nahiko nuke. Nire lehen denboraldian izan nuen hori bizitzeko aukera, eta eskubaloiarik lotuta dudana oroitzen politena da.

J. A. I.: Asobalen debuta egitea eta Hondarribiarekin igogera fase-
ra sailkatzea dira nire erronkak.



JABI GONZALEZ TOSTON

San Jose egoitzako Unitate Psikogeriatrikoa berritzeko lanak hasi ditu aldundiak

Eraberritzeko lanak hasi dituzte, eta hamabost plazako gunea eraikiko dute, banakako logelekin eta bainugela propioarekin.

- ANE OLAIZOLA *Azkoitia*
Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azkoitiko Udalak iaz jakinarazi zuten 3,6 milioi euro bideratuko dituztela San Jose egoitza aldundiaren zaintza eredu berrira egoitzeko, eta orduan sinatutako akordioaren barruan, egoitzan Unitate Psikogeriatrikoa (UPSI motakoa) eraberritzeko lanak hasi ditu aldundiak. 4.700.000 eurotik gorako inbertsio osoan aurreikusitako jardueretako bat da.

Udalak jakinarazi du urriaren hasieran hasi zitzutela obrak eta gutxi gora-behera hamabost hila-beteko iraupena izango dutela. Unitatea osorik eraberrituko dute, eta birmoldaketa horren bidez ezarri nahi dute zaintza eredu berria. Izan ere, hamabost plazako gunea eraikiko dute, banakako logelekin eta bainugela propioarekin, «bizikidetzat unitate murritzak osatuz». Era berean, unitate berria atari baten inguruan sortuko da, eta horrek logeletan argitasun handiagoa



Azkoitiko San Jose egoitzako eraberritze lanak. AZKOITIKO UDALA

eta erabiltzaileentzako espazio propio berria ahalbidetuko dituela azaldu du erakundeak. Logelak bereizitako bi gunetan banatuko dituzte, era horretara korridoreak saihestuz. Jarduera horrek 2.949.980 euroko aurrekontua du.

Eguneko zentroa

2022ko akordioan sinatu zuten, San Jose egoitza birmoldatzeko proiektu osoak hainbat lan aurreikusten ditu, eta horietako beste bat da eguneko zentroa he-

rrigunera, Burdinoleta kalera, eramatea. Lan horiei dagokien, udalak azaldu du eguneko zentroa hara lekualdatzeko izapideak egiten ari dela, eta obrak datorren urteko lehen hiruhilekoan has daitezkeela. Horretarako, udalak aldundiari lagako dizkio 454.874 eurotan erositako bi lokalak. Aldundiak espazioaren %65 eta egokitzapen lanak finantzatzeko ditu. 356,60 metro koadroko espazioa da, eta 30 plaza izango ditu, egun baino hamar gehiago.

Errezilgo Udalak ia tasa guztiak %2 igoko ditu datorren urtean

- NEREA URANGA Errezil

Urriaren Sean egindako udalbatzarrean erabaki zituzten datorren urteko ordenamendu fiskalak Errezilgo Udalean, EH Bilduko ordezkarien aldeko botoekin. 2024an udal tasa ia guztiak %2 igotzea erabaki dute: «Zabor biltzearen, uraren eta ibilgailuen tasak igoko ditugu, baina obra baimenarena bere horretan mantenduko dugu. KPia goraka doa, eta tasak zerbait igo beharra izan dugu. Horretarako, Gipuzkoako beste herri txikiak kopuruak kontuan hartu ditugu, eta batez besteko bat igoko dugu Errezilen. Beste herriekin alderatuta, erdi parean gaude Errezilen», azaldu du udalaren erabakia Koldo Arzallus alkateak.

Udal zerbitzuen erabilerarako prezioetan ere zenbait aldaketa egitea erabaki dutela adierazi du Errezilgo alkateak. Azken urteetan prezioak igo dituzten kasuetan, ez dituzte igoko prezioak; esaterako, trikiti ikastaroan. Dantzako eta pilateseko ikastaroetako kuotak, ordea, datorren urtean igo egingo dituzte.

Familia ugarietako udal tasa eta zerbitzuen prezioetan dagozkien hobariak, berriz, mantendu egingo ditu udalak.

Hilerriko zerbitzua

Datorren urteko Errezilgo udal ordenantza fiskaletan aldaketa nabarmenena hilerriko zerbitzuak izango du, Arzallusek azalduenez. «Orain arte, hilerrian hobiratzea herriko agutzilaren eta Azpeitiko hilerriko langilearen artean egiten zuten, baina gertatu izan da hiletaren bat egon eta biak falta izatea. Horri irtenbidea emateko, hilerriko zerbitzurako enpresa bat kontratatu du Errezilgo Udalak».

Hilerriko zerbitzua kontratatatu izanak tasa batzuen aldaketa eragingo du. Alkateak jakinarazi duenez, hilerrian hobiratzearen gastu guztiak hildakoaren familiaren gain ez gelditzeko, hilerriko zerbitzuaren zati bat udalak bere gain hartuko du. «2024tik aurrera izango da era horretan, eta bitartean, orain arte bezala ordainduko da hilerriko zerbitzua».



Errezilgo hilerria. GORKA ZABALETA

Zestoa eta Urepele senidetzeko ekitaldia egingo dute larunbatean

-AITZIBER ARZALLUS Zestoa

Manuel Olaizola *Uztapide* zestoarra eta Fernando Aire *Xalbador* urepeldarra (Nafarroa Beherea), bertsolari handiak ez ezik, lagun minak ere baziren. Aurtun 40 urte dira Uztapide hil zela, eta 47 joan dira Xalbador hil zenetik, baina haiekin jaietako harremanak bizi-bizirik jarraitzen du oraindik, eta horren adibide da bi bertsolarien jaioterriek, Zestoa eta Urepele, senidetzera erabaki izana.

Hain zuzen ere, larunbatean egingo dute senidetzeko ekitaldi ofiziala, Zestoako udaletxean, 12:00etan hasita. Bi herrietako hainbat ordezkari parte hartuko dute ekitaldi horretan. Aurre-

na, bi alkateek senidetze hitzarmena sinatuko dute; gero, Xalbadorren eta Uztapideren arteko laguntasunaren adierazgarri den bertsu sorta abestuko dute; eta jarraian, ekitaldia amaitzeko, soka dantza egingo dute herriko plazan. Zestoako Udalaren hitzetan, soka dantzaren bitartez, «bi herrien arteko lotura» irudikatuko dute. «Urepeldarrak eta zestoarrak eskuz esku elkarri lotuta ariko gara plazan, dantzan».

Larunbatekoa bi herrien senidetzeko ospatzeko egingo dituzten ekitaldietako lehenengoa besterik ez da izango. Hilaren 26an, antzerako beste ekitaldi bat egingo dute, baina ordukoa Urepelen; udaberrian, Urepele

Eguna ospatuko dute Zestoan; eta udazkenean, alderantziz, Zestoa Eguna Urepelen. Dena dela, egun horien nondik norakak zehazteko dituzte oraindik, eta hain justu, horretarako bilera egingo dute abenduaren 15ean, Alonderoko aretoan, 18:00etan hasita. Bilera irekia izango dela jakinarazi du udalak; beraz, interesadun herritar guztiak izango dute parte hartzeko aukera. Erakundeak azaldu duenez, bilera horren helburua izango da senidetzaren bueltan aurrera begira egingo dituzten ekintzak zehazten joatea, eta nabarmendu du herritarren parte hartzea garrantzitsua eta beharrezkoa izango dela.

Zozketa
29 KIROLA

HITZA *kide* **en**
TXOKOA



Gipuzkoa basket
Caceres Patrimonio de la Humanidad

[Zozketa zenbakia: 29] Partida eguna, ordua: azaroak 19 (17:00)

Sarrera bikoitz bat Lekua: Donostiako IIIunbe estadioan

Zozketan parte hartzeko delitu: 943-56 01 64 zenbakira edo webguneko **TXOKOA** atalean izena eman, gaurtik azarotaren 16ko eguerdiko 12:00ak baino lehen. Sari-dunen izenak ostialean argitaratuko ditugu.



Puntuka
Eider Agirre

Grebari begira

Gazteagoak ginela hasi ginen irakurtzen Rosa Luxemburg edota Aleksandra Kollontai, marxismoaren eta langile mugimenduen historian letra handiz idatzita geratu diren bi izen, beste hainbaten artean. Horiek langile mugimenduen norabideaz, produkzio baliabideen kontrolaz edota komunismoaz ziharduten. Eta garbi dago, gaur-gaurkoz, hitz handiak direla, egungo testuingurutik oso urrun geratzen zaizkigula tesi haiek. Gaur hartan langile mugimenduk oso bes-



Rosa Luxemburg. WIKIPEDIA

te era bateko indarra baitzeukan, gai baitzen aldaketa sakonak eragiteko gizarte-an.

Grebe ere, testuinguru historiko hartan dute jatorria. Izan ere, langile mugimenduen indar kualitatiboa erakusteko tresna aparta ziren. Langileek lanuz-

tea egitearekin batera, enpresen ekoizpena gelditzen zen, eta ziklo kapitalistak tust egiten zuen momentu horietan. Metafora izan zitekeen, baina errealtatea horixe zen, horrek erakusten zuen langileriak zeukan potentzial iraultzailea.

Gaur egungoa, ordea, oso bestelako

testuingurua da. Langile mugimendua bera, mapatik ezabatuta, antolakuntzarako gaitasunik gabe dago kasi. Eta azken boladan grebak deitu izan badira ere, jatorrizko zentzua galdua daukate aspalditik. Gaurko grebek gehiago dute sinbolikotik, gehiago ideologiatik.

Hori bada egungo egoeraren sintoma bat, ez baitira langile mugimenduen garairik onenak; ez soilik ez garelako gai ekoizpena geratzeko, grebarik egin ezin da hainbat eta hainbat emakume langile geratuko direlako baizik; paperik gabe lanean dabiltzanak, greba eskubidea urratzen zaiena edo beste hainbat.

Hala ere, sozialistok lana da errealtatearen analisi zehatza egitea eta langilearen antolakuntza independenterako tresnak garatzea; horretan gabiltza azaroaren 30era begira. Greba orokor feministan, emakume sozialistok emakume langilearentzako tresna politikoak mahai gainean jarri eta dauzkagun erronkei heldu nahi diegu. Greba komiteak egiten ari gara azken aste hauetan, eta 30era begira ere eskualde nahiz maila nazionalako hainbat ekitaldi antolatuko ditugu emakume sozialistok iritzia ere lehen lerroan egon dadin.

Gutunak



Azpeitiko Udalarri

Azpeitian, Udal Euskaltegia, hainbat langilek egiten dugu lan. Horietako batzuk lanpostu finkoa dute, besteak egonkortze prozesuan daude, eta azkenak aldi baterako kontratatutak gara, hau da, lan kargaren arabera bat, bi ala hiru langile egon gaitezke bertan lanean.

Lan kargaren arabera izendatutakoa naiz ni neu. Bada laugarren ikasturtea bertan ari naizela lanean, eta dudarik gabe, oso gustura. Baina...

Badirudi lanean beste langileengan konfiantza izan behar dugula, konpetenteak direla eta lana ondo egingo dutela. Horien artean daude Giza Baliabidekoak: soldatak, aparteko ordainsariak eta kitapenak ordaintzen dizkiguten pertsonak. Bada, ordea, ezustekorik; ez bat, bai bi.

Alde batetik, ordaindu izan dizkiguten opor egunak ez dituzte ondo kalkulatu, eta ondorioz, egun kopuru horiek erabat baldintzatu izan digute udan langabezia kobratu ahal izateko data, eta zer esanik ez lan bizi-

tza. Hau da, ez da gauza bera 18 opor egun ala 34 opor egun izatea. Izan ere, horren arabera, uztailaren 19an ala abuztuaren 5ean eska dezakezu langabezia saria. Uler dezakegu akatsak egon daitezkeela, eta jakin badakigu denok egiten ditugula, baina sikiera erreklamatzeko badugu, birbegiratu eta onartu akatsa, eta noski, konpondu ahalik eta azkarren. Bestalde, langileok izendapenak edukitzeko eskubidea ere badugu, alegia, kontratuak, gure lanaren frogagiriak baitira; zuek, berri, izendapena bidaltzeko betebeharra duzue.

Beste aldetik, zer esan ordaindu ez didazuen kitapenaz. Zer dela eta nork erabakita kitapenik ez ordaintzea? Jakin ezazue oso larria dela gertatutakoa.

Ez nuen ez asko espero udal baten partetik horrelako egoerarik gerta zitekeenik. Baina bai, gertatu da eta gerta daiteke. Horri eskubide urraketa deitzen zaio; inongo eta inolako langilearen partetik onartezina.

Sindikatuari esker, errekurtsioa jarrita lortuko dugu 2022ko kitapena kobratzea. Beste batzuen akatsengatik, ordea, langile batzuei tokatu zaigu orain ere besteen akatsak ordaintzea.

Gertatutako justua dela uste al duzue?

—**Ane Azkue Etxeberria.**

Azpeitia.

Eskualdeko hainbat musikari, Saharari Kantari egitasmoan

—IHINTZA ELUSTONDO

Kristina Berasain kazetariak gertutik jarraitu izan du Mendebaldeko Saharako gatazka azken urteotan eta egun ere harreman estua du herrialde horrekin, eta haren ekimenez, Sahara Kantari egitasmoa jaio da. Hain zuzen ere, izen bereko diskoa eta *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuak dira proiektu horren emaitza.

Kultur arloan Euskal Herria eta Mendebaldeko Sahara elkarrekin gatazka azken urteotan eta egun ere harreman estua du herrialde horrekin, eta haren ekimenez, Sahara Kantari egitasmoa jaio da. Hain zuzen ere, izen bereko diskoa eta *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuak dira proiektu horren emaitza.

Bildumako hamabi kantetan hainbat artista entzun ahaliko dira: Mikel Laboa –haren ahoz azken diskoa–, Mikel Urdangarin, Anari (azkoitiarra), Iker Lauroba, Esti Markez (aiarra), Fariba Sheikhhan, Oreka TX, Postal Kolekzionistak, Physis versus Nomos, Pello Reparaz, Izaro, Olatz Salvador, Idoia Asurmen-



Saharari kantari diskoaren azala. HITZA

di, Itziar Ituño, Eñaut Elorrieta (Getariako bizilaguna), Olaia Inziarte, Aziza Brahim eta Ali Seidah. Brahim eta Seidah Saharan jaio eta hazitako abeslariak dira.

Abeslariak aurretik sortutako kantak daude diskoan, baina baita Saharari Kantari ekinaldirako espresuki sortutako lanak ere.

Diskoa aurkezteko, kontzertu bakar bat emango dute, abenduaren 22an, Donostiako Kursalean. Kontzertuan «sorpresa

ugari» egongo direla esan dute antolatzaileek, Jon Maia bertso-lari zumaiarra tartean.

Hainbat laguntzaile

Sahararren askatasunaren alde, Berasain kazetariak bere ideia egia bihurtzea lortu du Euskal Fondon, Donostiako Udalarren, Elkarren, Berriaren eta Bakunen laguntzarekin.

Diskoa nahiz liburua *Berria* egunkariaren dendan eskura daitezke.



Iaz Txikitasunean Handiren barruan egin zuten azokan hartutako irudia. ANE OLAIZOLA

Plaza Ondok Jubilatuen Astea antolatu du hilaren amaierarako

—**ANE OLAIZOLA** Azkoitia Plaza Ondo jubilatuen elkartearen eskutik, erretiratuek beren astea ospatuz agurtuko dute azaroa. Izan ere, Jubilatuen Astea prestatu dute beste urte batez, eta horiek askotariko ekintzez gozatzeko aukera izango dute hilaren 27tik abenduaren 3ra artean.

Azaroaren 27an, astelehenarekin, hasiko dira Jubilatuen Aste-ko ekintzak, eta Juan Bautista Mendizabal herriko kronista ofizialak irekiko du egitaraua: hain zuzen, San Jose ermitaren eta Santa Klara elizaren historia ezagutzeko bisita gidatua eskainiko du hark, 10:30ean Balda plazan elkartuta.

Hurrengo egunean ere Balda plazan elkartuko dira, 10:00-etan, baina ibilaldia egingo dute orduan. Hain zuzen, Santa Kutz, Laja eta industrialdea zeharkatuz Loiolara joango dira, eta han-

dik herrira itzuliko dira, bidegorritik.

Hilaren 30ean, San Andres egunean, berriz, txorizo pintxoia eta txikitoa eskainiko dituzte Or-bela jatetxean. Abenduaren leian, bestalde, seiko urre, mus eta eskoba txapelketak jokatu-ko dituzte 16:00etan, eta joko bakoitzeko aurreneko hiru bikote-entzat sariak banatuko dituzte.

Abenduaren 3an, igandez, amaituko dute Jubilatuen Astea: 11:00etan, meza izango da parro- kian, eta 14:00etan, bazkaria egingo dute Joseba jatetxean. Hara joan nahi duenak hilaren 24ra artean eman dezake izena bulegoan, eta otordurako txarte- lak jasotzeko ezinbestekoa izan- go da bazkide txartela aurkeztea. Bazkideek 42 euro ordaindu be- harko dute, eta gainontzeko her- ritarrek 45 euro. Bazkalondo- ren, dantzaldia izango da Lajare- kin.



Jubilatuen Astearen barruan iaz egin zuten bisita gidatua. HITZA

Arroabeen baserritarren eta artisauen azoka egingo dute

44 postu jarriko dituzte igande goizean Arroabeen, hiru gunetan banatuta, eta inguruko ekoizleen eta artisauen askotariko produktuak erosteko zein dastatzeko aukera izango da.

—**MAILO OIARZABAL** Zestoa Aurreko urteetan Txikitasunean Handi asteburuaren barruan egin ondoren, aurreko bere egun propioa izango du Arroabeko artisauen eta baserritarren azokak. Datorren igandean egingo dute, 10:00etatik 14:00etara artean, eta 44 postu jarriko dituzte guz- tira.

Lehen sektoreko inguruko ekoizleen eta artisauen askotari- ko produktuak erosteko zein dastatzeko aukera izango da Ez- kaizto auzo elkarteak Txara den- daren laguntzarekin antolatuta-

ko azokan. Azoka osatuko duten 44 postuak hiru gunetan bana- tuta egongo dira. San Isidro pla- zan hogeitatu postu elkartuko dira; intxaurrak, eztiak, esnekiak, ba- razkiak, bakailaoa, foie, txorizoa, ogia edota pastelak erosteko au- kera izango da han. Artisauak, berriz, pilotalekuan elkartuko dira; bitxiak, zeramika zein egur lanak, ukenduak, xaboiak, oine- takoak, arropa edota bestelako eskulanak egiten dituzten arti- sauek han erakutsi eta salduko dituzte beren produktuak. Joxe Migelen plaza izango da azokako

beste gunea, eta han produktuak erosteko zein dastatzeko aukera izango dute azokara joaten dire- nek; taloak jateko, eta txakolina, sagardoa, ardoa edo likoreak, edateko aukera, hain zuzen.

Aurreko aldietan bezala, azo- kara joateko asmoa dutenek ahal dela garraio publiko —trena edo autobusa— erabiltzea eskatu dute antolatzaileek. Bestelako ibilgailuetan joango direnei, be- rriz, ibilgailuak herrigunetik bost minutura dagoen Sansine- nea industrialdean aparkatzeko gomendatu diete.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

**UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN**

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
merkeago ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne



Soreasuko sarreraren ikus daitekeen txotxongiloen erakusketaren irudi bat. KULTURAZ

Euskal Antzerki Topaketak, txotxongilo artearen erakusleaho

Antzerki tradizionalaz gain, Euskal Antzerki Topaketen aurtengo menuko osagai izan dira txotxongiloak • Tolosako Topic museoaren zatitxo bat eraman dute Azpeitira

**-MAIALEN ETXANIZ-
ANE OLAIZOLA** Azpeitia

Udazkenarekin batera Azpeitira iritsi zen Euskal Antzerki Topaketen 41. edizioak aurrera jarraitzen du astez aste, eta antzerki tradizionalaz gain, aurtengo menuko osagai izan dira txotxongiloak ere. Corrado Masacciren erakusketaz aparte, aurtun, estreinakoz, Tolosako (Gipuzkoa) Topic museoaren zatitxo bat eraman dute Azpeitira.

Nazioarteko txotxongilo zentroa da Topic, eta 2009ko azaroan zabaldu zituen ateak. Europa osoan txotxongilo arteari eskainitako zentro integral bakarrenetakoa da. Tolosara gerturatu ezin dutenek, ordea, Topicek gordetzen duen altxorren zatitxo bat ikus dezakete egunotan Azpeititik irten gabe. Izan ere, Soreasu antzokiaren sarreraren jarri dute ikusgai Topicetik ateratako txotxongilo sorta. Mota eta

lurralde desberdinetako txotxongiloak ikus daitezke bertan. Besteak beste, Maliko, Vietnamgo, Txinako, Indonesiako, Txekiar Errepublikako eta Euskal Herriko lanekin osatu dute Azpeitiko erakusketa.

Txotxongiloak askotarikoak dira: ur gaineak, hegaxkak, eskularruak, mahai gaineak... baita gorputz osoak ere. Xehetasun askoko lanak dira, eta horiek guztiak gertutik ikusteko aukera dute herritarrek antzerki emanaldien aurretik eta ondoren.

Kulturaz kooperatibako kide Aitor Bengoetxeak azaldu duenez, Topicekin elkarlana hazi nahi izan dute aurtengo topaketetan, arte eszenikoen barruan «elementu garrantzitsuak» direlako txotxongiloak eta horietan espezializatutako nazioarteko zentroa «oso gertu» dutelako. «Elkarlanean bidez alde biek

“

«Uste genuen elkarlanarekin alde biek zerbait polita egin genezakeela»

Aitor Bengoetxea
Kulturaz kooperatibako kidea

«Askotariko gaiak eta balioak lantzen saiatzen gara umekin»

Izaro Olan
Topiceko langilea

«Topicen modu zabal batean erakusten dugu zer den txotxongilo bat»

Asier Pagola
Topiceko langilea

zerbait polita egin genezakeela uste genuen», esan du Bengoetxeak. Harreman horren lehen fruitu gisa jarri dute Soreasu antzokiaren sarreraren txotxongiloen erakusketa txikia, herritarrek jakin dezaten Tolosako zentroan zerekin egin dezaketen topo. «Azpeitian erakusgai jarri duguna herritarrentzat amua izan daiteke, horiek ondoren Tolosara joan daitezen, Euskal Herrian zein nazioartean erreferentia den altxorra baita hangoa».

Euskal Antzerki Topaketen eta Topic zentroaren elkarlanean beste emaitza izan zen joan zen igandean gauzatu zutena: Dinamoa sormen gunean elkartu ziren 6 eta 12 urte arteko umeak eta haien gurasoek txotxongiloak egiten ikasteko tailerra jaso zuten.

Topiceko kide Izaro Olanok eta Asier Pagolak eskaini zuten tailerra, haien zeregina baita

txotxongiloak ardatz izanda herritarrekin pedagogia lantzea. «Familia tailerra sortu dugu, eta Tolosan hilabetero egiten dugun dinamika bera izan du Azpeitiko saioak. Txotxongiloak eraiki ditugu lehenik, eta gero ikuskizuna izan dugu. Oso ondo pasatu dugu», esan zuen Pagolak tailerra amaitu berritan.

Heziketa, txotxongiloekin

Bi lagunek askotariko ekintzak egiten dituzte publiko desberdinari zuzenduta, baina batez ere eskoletako ikasleekin egiten dute lan, haiei museoaren berri emanez zein umekin txotxongiloen munduan sakonduz. «Askotariko gaiak eta balioak lantzen saiatzen gara umekin, eta orain, gazteengana ere iritsi nahi dugu». Olanoren esanetan, lantzen dituzten gaien arabera, emaitza «interesgarri asko» jasotzen dituzte saioetan. «Tailerrean hizkuntza eta gorputz adierazpena modu desberdinetan lantzen dira, eta askotan, zerbait hitzez esateak lotsa ematen badie, txotxongiloen bidez adierazten dute. Gertatu izan zaigu ume lotsati bat egotea tailerrean eta publikoki zerbait adierazi nahi ez izatea, baina txotxongiloari bizitza ematen dion momentuan gorputzaren arteko disoziazioa sortzen denez, hark txotxongiloaren bidez transmiti ditzake gauza asko, bere kabuz eta bere gorputzean adieraz ezin zitzakeenak», azaldu du Olanok.

Topic zentroan 2.500 txotxongilo dituzte egun jendaurrean, eta museo iraunkorra ez ezik, aldizkako erakusketak ere zabalitzen dituzte. «Bospasei hilabetero aldatzen joaten gara, eta antzerki taldeen zein autore jakin batzuen erakusketak izaten ditugu. Modu zabal batean erakusten dugu zer den txotxongilo bat», jakinarazi du Pagolak. Museoa izateaz gain, askotariko ekintzak egiten dituzte zentroan, hala nola txotxongilo ikuskitzuna eta arte eszenikoei zuzendutako egonaldia artistikoak. «Denentzako irisgarria den espazio bat izatea nahiko genuke, eta herritarrek askotariko jarduerak izatea bertan. Norbaitek interes pertsonalik baldin badu, berriz, adieraz dezala. Beti gaude prest proiektu berriak egiteko».